

John Tejadaren musika elektronikoa azaroaren 20ko Art After Dark saioan

Azaroaren 20an, ostiralean, **John Tejada** izango da Art After Dark saioaren protagonista Guggenheim Bilbao Museoko Atrioan. Orkestra-zuzendari baten eta omen handiko soprano baten semea da, eta Austrian jaio bazen ere, 8 urterekin AEBra joan ziren. Musika elektronikoa testuinguruan, John Tejada tekno artista, produktore, nahasle eta DJ gisa jardun du, eta Palette Recordings disko-etxearen —tekno fina lantzeagatik ezaguna— nagusi izan da. Bere produkzioa tempoaren eta generoaren barruan mugitzen da, moldaketa uhindu zabaleko espazio lasaiekin, eta DJen eskuetan zein musika-ekipoetan oso ondo funtzionatzen duten energia handiko geruzez betetako pistekin.

Tejada 1997an hasi zen nazioartean lan egiten, eta orduz geroztik Movement (The Detroit Electronic Music Festival), Sonar Festival (Espainia eta Tokio), Dance Valley (Herbehereak), Sync Festival (Grezia) eta Mutek Mexiko mundu osoko jaialditan izan da, eta Fabric (Londres), Yellow (Tokio), Rex Club (Paris) eta The Walt Disney Concert Hall (Los Angeles) nazioarteko aretotan musika jartzen ibili da. 2004ko udan ospetsu egin zuten bi abesti sortu zituen: “Sweat On The Walls” klasikoa eta “Mono On Mono”. Bien artean 23.000 kopia baino gehiago saldu dituzte biniloan. Arrakasta handia lortu duten Tejadaren beste single batzuk hauek dira: “Paranoia”, “Mind Bend” (Justin Maxwell kantariarekin), “Voyager” eta “The End Of It All”.

Saioa 22:00etan hasiko da, **Javier Francoren** eskutik. Francok, 1990eko hamarkadaren bukaeraz geroztik, DJ eta sustatzaile gisa dihardu. Musika elektronikoa kultura hedatzeko helburuarekin, NoData taldea eratu zuen. Bilboko hainbat klubetan ekitaldiak antolatzen espezializatu ziren, eta mundu-mailako DJak kontratatzen aitzindariak izan ziren. 2005eko azaroan, beste bi bazkiderekin batera, Fever sortu zuen, eta data horretatik aurrera bertako zuzendarietako bat izan da. 2008az geroztik Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarlanean egindako Art After Dark proiektuaren programazioaren arduradun artistikoetako bat da. Saio hauetan parte hartzen duela baliatuz, DJ gisa bere alde finena eta dotorena erakusten du.

Azaroko Art After Dark saiora bertaraten direnek *Making Africa – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* erakusketaz eta Shahzia Sikanderren *Paralajea* bideoinstalazioaz gozatzeko aukera izango dute.

Sarrerak salgai egongo dira saioaren egunean (18 urtetik gorakoak): 13 € publiko orokorra eta 9 € Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua.

Salgai txarteldegian eta www.guggenheim-bilbao.es webgunean.

Bilbon, 2015eko azaroaren 5ean